

3. (1533)



3.1. 1533. URTEA

3.1.1. Joan Martinez Olotzagakoa kontularia eta Bekolako auzia

Joan Martinez Olotzagakoa kontularia Maria Lopez Altzolaraskoarekin ezkondu zenean, Bekolako etxea eta ondasunak bereganatu zituen, baina auzitan zebilen Joan Lopez Altzolaraskoa koinatuarekin Valladolidko Kantzelaritzan (ikus 2.1.8. atala eta [XVI. m. (32-X) 4] eta [XVI. m. (32-X) 5] agiriak).

- 1533-I-2an, Aizarnako plazan, auziari jarraipena emanez Anton Mendiola eskribauaren aurrean Joan Martinez Olotzagakoa kontularia azaldu zen. Joan Martinez Amilibikoa eskribaua, Zestoako biztanlea, lekuko gisa aurkeztu zuen. Joan Martinez Amilibikoa zin egin zuen kontulariak prestaturiko galderei egia erantzungo ziela. Zin egin zuenean lekuko hauek ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza, Migel Artazubiaga eta Domingo Urbieta (Zestoako eta Aizarnako elizetako benefiziadua).

- 1533-I-4an, Aizarnako plazan, kontulariak Domingo Hernandez Dornutegikoa zumaiarra aurkeztu zuen lekuko gisa. Galdera batzuei baino ez zien eran-

tzungo. Zin egin zuen zumaiarrak. Tomas Amilibia eta Lope Amilibia harginak izan ziren zinean lekuko.

- 1533-I-7an, Txiribogako burdinolan, Joan Martinez Olotzagakoak Sebastian Artazubiaga eta Martin Ondalde zestoarrak aurkeztu zituen lekukotzat. Hauek ere zin egin zuten, eta bertan lekuko hauek izan ziren: Domingo Aranburu, Martin Txiriboga eta Joan Martin Indo.

- 1533-I-9an, Aizarnako plazan, kontulariak Beltran Untzeta (Getariako eskribaua) aurkeztu zuen lekuko gisa, eta honek ere zin egin zuen, aurrean Joan Martinez Amilibikoa eta Tomas Amilibia zestoarrak zirela.

- 1533-I-11n, Azpeitian, Joan Martinez Olotzagakoak Anton Mendiola eskribauaren aurrean lekuko gisa Martin Ruiz Errekondokoa errezildarra aurkeztu zuen. Martin Ruizek zin egin zuen Azpeitiko Luis Alzaga? eskribaua eta Domingo Zabala hargina eta Azpeitiko elizako erretorea aurrean zirela.

- 1533-I-13an, Azpeitian, kontulariak Martin Gartzia Oñazkoa, Loiolako jauna, aurkeztu zuen lekuko gisa. Honek zin egin zuen Azpeitiko Joan Martinez

3.1. irudia. Valladolidko Kantzelaritza.



Altzagakoa eskribaua eta seme Domingo Alzaga eskribauaren aurrean.

- 1533-I-15ean, Azpeitian, kontulariak Getariako Joan Martinez Untzetakoa, korrejimenduko prokuradorea, aurkeztu zuen lekuko gisa. Honek zin egin zuen Azpeitiko Pedro Gartzia Loiolakoa eskribauaren eta Joan Olaberrietakoaren aurrean.

Joan Martinez Olotzagakoaren aginduz Atxaran batxilerrak prestaturiko galderei lekukoek emandako erantzunak 2.1.8.2. atalean eta [XVI. m. (32-X) 4] agirian argitaratutakoak dira.

- 1533-IV-23an, Valladoliden, Kantzelaritzako epaileek errege-agindua bidali zieten Gipuzkoako korrejidoreari eta bertako agintariei. Joan Martinez Olotzagakoak eta emazte Maria Lopez Altzolaraskoak, batetik, eta Joan Lopez Altzolaraskoa adingabeak, bestetik, auzia zuten Bekolako ondasunez.

Joan Martinez Altzolaraskoa kontulariak eta emazteak Bekolako arbasoen zenbait agiri behar zituzten. Zestoako Martin Ibañez Garratzakoa eskribaua zenak egindakoak ziren batzuk, Zarauzko Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribau zenak egindakoak beste batzuk. Joan Martinez Amilibikoa eskribau zenak eta Frantzisko Perez Idiakaizkoak egindako agiri batzuk ere behar zituzten.

Errege-baimena zeukan kontulariak aipatutako eskribauen erregistroetatik agirien kopiak ateratzeko. Kopiak atera behar zituztenean, Joan Lopez Altzolaraskoari, auziko beste aldeari, dei egingo zioten, hura ere aurrean egon zedin.

- 1532-IV-28an, Valladoliden, Joan Martinez Olotzagakoaren izenean Joan Rodriguez de Pedrosa eskribauak errege-baimenaren berri eman zion Martin Arrateri (Joan Lopez Altzolaraskoaren prokuradoreari). Jarraian Joan Lopez Altzolaraskoari berari jakinarazi zion errege-baimenak zioena.

- 1532-V-14an, Zarautzen, Azpeitiko Martin Arana aurkeztu zen Martin Ruiz Lertxundikoa alkatearen eta

Beltran Mendia eskribauaren aurrean. Azpeitiarrak, Joan Martinez Olotzagakoaren izenean, errege-baimenaren arabera Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribau zenaren agiri batzuen kopia eskatu zien. Joan Lopez Altzolaraskoa ez zen azaldu, nahiz eta deia egin. Joan Aranburugoikoa aiarra eta Fernando Izeta zarazutarra izan ziren lekuko.

Jarraian Beltran Mendia eskribauak, eskatutako agiriak aurkitu zituen Nikolas Ibañez Igartzakoa eskribau zenaren erregistroetan. Zarauzko Joan Arrazubia (Laurgaingo erretorea) eta Martin Eiztaran apaiz-ek eta Martin Perez Lertxundikoak ikertu zituzten, zin eginda, delako agiriak. Ontzat eman zituzten. Alkateak kopiak atera eta Martin Aranari eman ziezazkiola agindua eman zion eskribauari.

- 1533-VI-4an, Zestoako Pedro Ausoroetxea alkatearen aurrean, Joan Martinez Olotzagakoa kontularia azaldu zen errege-baimenarekin. Alkateak Joan Martinez Ibañetakoa eskribauari Martin Ibañez Garratzakoa eskribau zenaren erregistroetan Joan Martinez Olotzagakoak eskatutako agiriak bila zitzala eskatu zion. Martin Ibañez Garratzakoa zenaren erregistroak gero Pero Lopez Barrundikoa eskribau zenaren esku egon ziren.

Delako agiriak ikertzeko, lehenbizi zin egin zuten Blas Artazubiaga eskribauak, Joan Martinez Amilibikoa eskribau gazteak, Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak eta Esteban Artazubiagak. Aurkitutako agiriak ontzat eman zituzten guztiek.

Orduan Pedro Ausoroetxea alkateak aginduta, Joan Martinez Ibañetakoa agirien kopiak egin eta Joan Martinez Olotzagakoari eman zizkion.

- 1533-VI-17an, Valladoliden, kontulariaren izenean Joan Otxoa Urkizukoa prokuradoreak eskabidea egin zien epaileei, eta haren berri beste aldeari eman zioten.

- 1533-VI-17an, Zestean, Pedro Ausoroetxea alkatearen aurrean Joan Martinez Olotzagakoa kontula-

riak Zarauzko erroldako Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren agiri bat eskatu zuen. Ondoren alkateak Joan Martinez Amilibikoa eskribau gazteari izen bereko eskribau zenaren erregistroetan agiria bila zezala agindu zion.

Agiria aurkituta, Zestoako Joan Martinez Ibañetakoa eta Blas Artazubiaga eskribauak eta Esteban Artazubiagak, zin egin ondoren, aztertu eta ontzat eman zuten. Gero alkateak Joan Martinez Amilibikoari kontulariarentzat kopia presta zezala agindu zion. Lekuko Pedro Martinez Baltzolakoa, Joan Perez Arretzekoa eta Pedro Akoa zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (33-I) 1] agiria).

3.1.1.1. Joan Lopez Altzolarakoaren galderak eta lekukoen erantzunak

Aurreko urtearen amaieran, 1532-XII-5ean, Zestoan, Anton Mendizabal eskribauaren aurrean San Joan Arretxe azaldu zen Joan Lopez Altzolarakoaren izenean. Lekukoei egin beharreko galderak aurkeztu zituen. Hauek ziren galderak:

1) Ea ezagutu zituzten Joan Lopez Altzolaraskoa gaztea, Pero Lopez Altzolaraskoa aita, Joan Lopez Altzolaraskoa aitona, Joan Martinez Olotzagakoa kontularia eta honen emazte Maria Lopez Altzolaraskoa.

2) Ea ezagutzen zituzten Bekola, honen baserriak, burdinola, errotak, mendiak eta gainerako ondasunak.

3) Ea zekiten Otxoa Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopez gaztearen aitona aitona) Elbira Gartzia-rekin Elizak agindutakoaren arabera ezkondu zela. Ea zekiten haien seme zaharrena Joan Lopez Altzolaraskoa izan zela, eta Lope Altzolarats eta beste seme-alaba batzuk ere izan zituztela. Ea zekiten auzi hura 1532ko uztailean hasi baino lehen aipatutako pertsonak fama onekoak zirela.

4) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopez gaztearen birraitona) Maria Ibañez Lasakoarekin ezkondu zela. Ea zekiten haien seme-alabak hauek izan zirela: Joan Lopez Altzolaraskoa seme zaharrena (aitona) Lope Altzolarats, Maria Joanes Altzolaraskoa eta beste zenbait.

5) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa aitona Grazia Sasiolarekin ezkondu zela eta seme-alaba hauek izan zituztela: Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Pedro Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopezen aita) eta Grazia Altzolarats.

6) Ea zekiten Pero Lopez Altzolaraskoa (aita) Maria Perez Untzetakoarekin ezkondu zela eta Joan Lopez Altzolaraskoa semea izan zutela.

3.2. irudia. Bekola etxea.



7) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoaren aita, aitona, birraitona eta birraitonaren aitaren garaian, azken 100 urteetan, Bekolako ondasunak maiorazkokoak izan zirela, eta seme zaharrenak izan zirela oinordeko.

8) Ea zekiten Otxoa Lopez (birraitonaren aita) hil zenean Joan Lopez Altzolaraskoa (birraitona) seme zaharrena izan zela oinordeko, eta beste anai-arrebei ez zietela parterik eman.

9) Ea zekiten Joan Lopez birraitona hil zenean oinordeko Joan Lopez aitona izan zela.

10) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa aitona hil zenean oinordeko Pero Lopez Altzolaraskoa (aita) izan zela, Jofre anaia zaharrenak maiorazkoa utzi egin zuelako, eta anai-arrebei parterik ez zietela eman.

11) Ea zekiten Bekolan oinordeko ez ziren anai-arrebei emandako parte oso txikia zela eta sal zitezkeen ondasunekin (maiorazkotik kanpokoekin), diruarekin, burdinarekin, arropekin eta abarrekin ordaindu zitzaizela.

12) Ea zekiten azken 8 urteetan Joan Martinez Olotzagakoak zeuzkan Bekolako ondasunek urtean 300 dukateko errenta eman zezaketela.

13) Ea zekiten auzitan zebilen Joan Lopez Altzolaraskoa 25 urte bete gabea zela, eta 20 urte ere ez zituela.

14) Ea zekiten Bekolako ondasunek azken 10 urteetan, saltzera jarriz gero, 13 edo 15 mila dukat balioko luketela.

15) Ea zekiten galderetan aipatutakoa Zestoan, Aizarnan eta inguruetan ezaguna zela.

- 1533-I-16an, Aizarnako plazan, Joan Apategik Joan Lopez Altzolaraskoaren izenean lehendik aurkeztuta zeuzkan galderez gain, bigarren galdera sorta hau ere erantsi zuen:

1) Ea zekiten Joan Martinez Olotzagakoa kontularia ezkondu baino lehen Bekolako burdinola, errota eta etxe nagusia konponduta zeudela eta urtebete zeramatala lanean.

2) Ea zekiten kontularia ezkondu zenean Bekolako mendietan baso handiak zeudela eta bertan ibiliz zerua ere ez zela ikusten baso itxiak zeudelako.

3) Ea zekiten orduan baso haiek guztiak soilduta zeudela, zuhaitz batzuk oinetik moztuta zeudela eta beste batzuei adarrik ere ez zitzaizela utzi.

4) Ea zekiten mendi haietan basoak hamar urtetik behin soiltzeko moduan hazten zirela.

5) Ea zekiten Sebastian Artazubiaga behartuta zegoela burdinola eta errotako errentarekin Bekolako zorrak ordaintzera, eta orduan Joan Martinez Olotzagakoa kontularia ezkontzeko kontratua egin zutela.

6) Ea zekiten kontularia ezkondu ez balitz Sebastian Artazubiagak zorrak ordainduko zituzkeela.

7) Ea zekiten Bekolako burdinolak batez beste urtean mila kintal burdina ateratzen zituela, eta kintal burdinaren prezioa batez beste urrezko dukat batekoa zela.

8) Ea zekiten Bekolako errotan, jabea bertan bizi izan balitz, etxe koentzat alea ekarriko lukeela eta halaxe ekartzen zutela Pero Lopez Altzolaraskoak, Joan Lopez aitak eta haien arbasoek.

9) Ea zekiten Pagaldazuri eta Zornotza baserriak eta Errotabarrena bere errotarekin kontularia ezkontzerako hormak eginda zeudela, eta, kalteturik egon arren, material denak edo gehienak etxe horietan zeudela. Ea zekiten kontulariak falta ziren teilak ipini eta Bekolako mendietatik egur gutxi batzuk ekartzea besterik ez zuela egin.

10) Ea zekiten Sebastian Artazubiaga maizterrak zor asko ordaindu zituela, eta zorrak kobratutako hartzekodunak hauek zirela: Joan Lopez Arteagakoa,

Esteban Artazubiaga, Blas Artazubiaga, Martin Ruiz Errekondokoa, Beltran Untzeta, Joan Martinez Untzetakoa anaia, eta beste zenbait.

11) Ea zekiten galdera hauetan adierazitakoa Aizarnan eta inguruetan ezaguna zela.

Galdera hauek aurkeztean lekuko honako hauek izan ziren: Domingo Aranguren, Joan Martinez Olotzagakoa eta Joan Lopez Altzolaraskoa.

Ondoren, Joan Apatetik lekuko gisa Domingo Aranguren aurkeztu zuen. Honek zin egin zuen egia aitortuko zuela. Jarraian Esteban Aranguren barberuak zin egin zuen Joanes Ipintza apaizaren eta Domingo Arangurenen aurrean.

- 1533-I-17an, Aizarnan, Anton Mendizabal eskribauaren aurrean, Joan Apatetik Joan Lizasoeta aurkeztu zuen lekuko gisa. Honek zin egin zuen Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Joan Indo apaizak aurrean zirela. Joan Otxoa Artazubiagakoak ere zin egin zuen lekuko gisa.

- 1533-I-18an, Aizarnako plazan, Joan Apatetik lekuko gisa Sebastian Ezenarro aurkeztu zuen. Zinean lekuko Joan Oliden eta Joan Ereño? izan ziren. Ondoren Grazia Mantelolak zin egin zuen Joan Aranoren eta Domingo Arangurenen aurrean. Jarraian Martin Zulaikak zin egin zuen, bigarren galdeketa galderei erantzuteko, Domingo Elurraren eta Domingo Arangurenen aurrean.

- 1533-I-21ean, Aizarnako plazan, Joan Apatetik Martin Legarda aurkeztu zuen lekuko gisa. Honek ere zin egin zuen aurrean hauek zirela: Lope Amilibia, Asentzio Amilibia eta San Joan Amilibia.

- 1533-I-24an, Aizarnako plazan, Anton Mendizabal eskribauari Joan Apatetik beste galdeketa bat (hirugarrena) aurkeztu zion, lekukoek erantzun ziezaioten. Hauek ziren galderak:

1) Ea jaun hauek ezagutzen zituzten: Zestoako Fernando Olazabal medikua, Joan Martinez Ibañe-



3.3. irudia. Aizarnako plaza.

takoa, Joan Kamio, Joan Arretxe, Pedro Egaña, Joan Gorosarri, Esteban Aranguren, Joan Ezenarro maisua, Fernando Arretiza, Sebastian Ezenarro, Martin Legarda eta Grazia Mantelola, eta Zumaiako Joan Etxabe, Pedro Mantzizidor, Joan Agirre eta Martin Narbazta.

2) Ea zekiten aurreko galderan aipatutako jaun-
andre zestoarrak fama oneko pertsonak zirela.

3) Ea zekiten Pedro Mantzizidor, Joan Etxabe, Joan Agirre eta Martin Narbazta fama oneko gizonak zirela.

4) Ea zekiten hura guztia Zestoan eta inguruetan ezaguna zela.

Hirugarren galdeketa haren aurkezpenean lekuko hauek izan ziren: Domingo Urbietta apaiza, Domingo Aranguren eta Sebastian Oliden.

Ondoren Joan Apategik Joan Lopez Altzolaras-koaren izenean lekuko gisa Pedro Egaña aurkeztu zuen hirugarren galdeketako galderei erantzuteko. Zin egin zuen egia aitortuko zuela, aurrean hiru zestoar hauek izanik: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Domingo Aranguren eta Joan Amilibia.

Jarraian Sebastian Oliden aurkeztu zuen hirugarren galdeketari erantzuteko lekuko gisa. Sebastianek zin egin zuen. Hurrengo Lope Amilibia eta Joan Amilibia harginek zin egin zuten, Martin Iribarrenaren eta Joan Martinez Amilibikoa maisuaren aurrean.

1533-I-25ean, Aizarnako plazan, Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak Anton Mendiola eskribauari kexa azaldu zion Joan Lopez Altzolaraskoak bere galdeketak legegizonek sinatu gabe eta epez kanpo aurkeztu zituztelako. Ez zituen haiek onartu behar. Anton Mendiola eskribauak zioenez, Joan Lopez Altzolaras-koaren hiru galdeketak legegizonek sinatuak ziren. Gainera, kontularia ez zen gai hura erabakitze-ko epailea. Lekuko Blas Artazubiaga, Joan Indo eta Joan Bengoetxea izan ziren.

Zestoako Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak, 80 urteko adinekoak, erantzun zien lehenbizi lehen galdeketako galderei. Bekolako jendea ezagutu zuen. Lekukoaren aita Joan Martinez Ibañetakoa 84 urterekin hil zen 30 urte lehenago, eta hark Otxoa Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopez Altzolaras-koaren aitona) ezagutu zuen Bekolako jaun zela. Gainerako galderei ere, oro har, baiezkoa erantzun zien. Otxoa Lopez Altzolaraskoak eta Elbira Gartziak seme hauek izan zituzten: Joan Lopez Altzolaraskoa (seme zaharrena), Aiara ezkondu zen Otxoa Altzolarats eta Lope Altzolarats anaia.

Joan Lopez Altzolaraskoa (birraitona) eta Maria Ibañez Lasaokoa ezkondu zirenean, kontratua Martin Ibañez Garratzakoa eskribauak idatzi zuen. Hain zuzen Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak zeuzkan Martin Ibañez Garratzakoaren erregistroak. Joan Lopez Altzolaraskoak (aitonak) anai-arreba hauek izan omen zituen: Lope Altzolarats apaiza, Otxoa Altzolarats eta

Maria Joanes Altzolarats. Otxoa Lopez Altzolaras-koaren seme bat, Otxoa Altzolarats, Aiako Otararrera ezkondu omen zen. Bestalde, Bekolako etxeak bere ondasun guztiekin zortzi mila dukat balio omen zituen.

Gero Joan Perez Arretxeokoa, 76 urteko zestoarrak, erantzun zien lehen galdeketako galderei. Oro har baiezkoa erantzuna eman zien. Bekolako Otxoa Lopez Altzolaraskoa (aitonaren aitona) izan ezik, gainerako guztiak ezagutu zituen. Joan Perez Arretxeokoa Kontzejuko alkate eta ofizial izan zenean ezagutu omen zituen Bekolako ondasunak. Joan Perez Arretxeokoa aita Pedro Arretxe 75 urterekin hil omen zen 26 bat urte lehenago. Martin Aspe ere 77 urterekin hil omen zen, eta zazpigarren galderak zioena baieztatu egin zuten beren garaian.

Jarraian Joan Kamio lekukoak, 76 urteko zestoarrak, erantzun zuen. Egin zitzaizkion galderei, oro har, baiezkoa eman zien. Joan Kamio gazte zenean txerriekin ezkurretara joaten omen zen Bekolara. Joan Kamioren aita Joan Egaña omen zen, eta 50 bat urte lehenago hil zenean 80 urte baino gehiago omen zituen. Laugarren galderak zioena baieztatu egiten omen zuen. Joan Kamio, hargina zenez gero, ibili omen zen Bekolan harrizko eskailerak egiten. Joan Kamioren aita Joan Egaña Bekolan morroi ibili omen zen.

Hurrengo erantzuten Fernando Olazabal medikua izan zen, 63 urteko zestoarra. Egin zizkioten galderei baiezkoa eman zien, oro har. Joan Fernandez Olazabalgua omen zuen aita, eta lehen galderak zioena baieztatu egin zuen. Fernando Olazabal Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen eta Mari Lopez Altzolaras-koaren senide omen zen. Fernando Olazabal zirujau-lanetan arituz eta alkate zen garaian, Bekolako ondasunen berri izan omen zuen. Jofre Ibañez Altzolaraskoak anaia Pero Lopez Altzolaraskoa anaia gazteari utzi omen zion Bekolako oinordetza, etxeak zor handiak zituelako. Pero Lopezek Jofreri oinordetzatik 400 dukat agindu omen zizkion.

Joan Ezenarro aizarnarraren txanda izan zen ondoren. 68 urte zituen eta, zurgin-maisu izanik, Bekolako

3.4. irudia. Aizarnako Gorosarri.



burdinolan jardun omen zuen lanean. Bekolako jendearen eta ondasunen berri bazuen. Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen eta Mari Lopez Altzolaraskoa arrebaren laugarren mailako senide omen zen.

71 urteko Martin Egaña aizarnarrak ere baietz erantzun zien egin zizkioten galderei. Martin Egaña zurgin gisa Bekolan lanean ibilia zen. Pero Lopez Altzolaraskoak anaia zahar Jofre Altzolaratsi 300 dukat agindu omen zizkion oinordetza hari ematearren. Bekolako etxeak bere ondasunek balio zezaketena balioetsi egin zuen. Urrezko 12.000 dukat balio omen zuen hamar urte lehenago.

Jarraian Maria Perez Potzuetakoak, Martin Aranoren emazteak, hitz egin zuen. 54? urte inguru zituen. Maria Perez Untzetakoa Joan Lopez Altzolaraskoa semeaz erditu zenean, bera ere haurdun omen zegoen. 1533ko urtarrilean edo otsailean Joan Lopez Altzolaraskoak 20 urte beteko omen zituen.

Ondoren Esteban Arangureni egin zizkioten galderak, 68 urteko aizarnarrari. Aranguren etxea bi baleztatiroko distantziara omen zegoen, eta Bekolako biztanleen eta ondasunen berri bazuen. Lekukoaren ama Grazia Arangurenek (70 urteko adinekoak) Otxoa Lopez Altzolaraskoa ezagutu omen zuen. Esteban Aran-

guren bera barberua (bizargina) zen, eta hamabostean behin Pero Lopez Altzolaraskoari bizarra mozten omen zion. Galderei, oro har, baiezkoa erantzun zien. Maria Ruiz Arangurengoa Estebanen amona omen zen. 28 urte lehenago 100 urterekin hil omen zen, eta Otxoa Lopez Altzolaraskoa ezagutu omen zuen.

Hurrengo galderak Pedro Perez Egañakoari egin zizkioten. 80 urte zituen eta Aizarnako Egaña etxean bizi zen. Lehenago Bekolan lanean ibilia zen, egurra garraiatzen, soroak lantzen eta burdinolako lanetan. Aita Pedro Egaña zen, eta 50 urte lehenago hil omen zen 70 urterekin. Otxoa Lopez Altzolaraskoa ezagutu omen zuen. Pedro Perez Egañakoak galderek ziotena ontzat eman zuen. Joan Lopez Altzolaraskoak (aitonak) eta Grazia Sasiolak, seme-alaba hauek eduki omen zituzten: Joan Lopez Altzolaraskoa, Otxoa Altzolarats, Jofre Altzolarats, Pero Lopez Altzolaraskoa, Grazia Altzolarats (Zarautza ezkondua) eta Errezila ezkonduak beste arreba. Lehen biak ezkondu baino lehen hil omen ziren. Pero Lopezen Mari Lopez Altzolaraskoa (kontulariaren emaztea), eta Grazia Lopez Altzolaraskoa (Pedro Ausoroetxearen emaztea) ahizpak ziren.

75 urteko Joan Gorosarri aizarnarrak eman zituen erantzunak ondoren. Gorosarrin bizi zen, eta aita Miguel Gorosarriri entzun omen zion Otxoa Lopez Al-

tzolaraskoa (Bekolako jauna) ezagutu zuela. Joan Gorosarri bera askotan Joan zen Bekolara lanera. Joan Gorosarri zurgina zen, eta Bekolan lanak egin zituen. Galderei baiezkoa erantzun zien. Martin Otxoa Gorosarrikoa 10 urte lehenago hil omen zen 80 urterekin, eta Joan Arano 20 urte lehenago 80 urterekin hil omen zen. Bi zaharrek ziotenez, haiek Bekola beti maiorazkoko etxetzat eduki zuten.

Hurrengo 70 urteko Katalina Aguió? aizarnarrak hitz egin zuen. Katalinak Pero Lopez Altzolaraskoarekin sasiko semea izan zuen. Joan Lopez Altzolaraskoa gazteak urte hartako urtarrilaren erdi aldera beteko zituen hogeitun urte; jaio zenean Katalina Bekolan baitzen.

Fernando Arreitza hauspagin zestoarraren txanda izan zen ondoren. 82 urte zituen eta bizi zen etxea (Urbietan) Bekolatik gertu zegoen. Hark ezagututako zaharrek ziotenez, garai batean Otxoa Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen aitona aitona) zen Bekolako nagusia. Galderei baiezkoa erantzun zien. Bekolako ondasunak maiorazkokoak ziren ala ez ez zekien; izan ere, horretarako errege-baimena zutenik ez baitzuen inoiz entzun.

Ondoren Zumaiako jurisdikzioko eta Etxabe auzoko Joan Etxabek hitz egin zuen. 85 urte zituen. Joan Etxaberen aita Martin Etxabek (25 urte lehenago 60 urterekin hil zenak) Bekolako Otxoa Lopez Altzolaraskoa ezagutu zuen bertako jaun zela.

Joan Etxabe, hain zuzen, hirugarren mailan Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen senide zen. Galderei, oro har, baiezkoa erantzun zien. Maria Perez Untzetakoa zena Joan Etxaberen lehengusu txikia izan zen. Joan Etxabek zioenez, ez zekien Gipuzkoan maiorazkoko etxerik zegoenik, harik eta lehengusu txiki zuen Joan Arteagak horretarako errege-baimena lortu zuen arte. Joan Etxaberen iritziz, Bekolako burdinola Gipuzkoako “agorrola” onenetakoa omen zen. Urtero mila kintal burdina ekoizten zituen.

Hurrengo txanda Oikiako Pedro Martinez Mantzizidorkoarena izan zen. 82 urte zituen eta Mantzizidor

etxean bizi zen. Pedro Martinezen emaztea Bekolako Maria Ibañez Altzolaraskoaren alaba omen zen, Joan Lopez Altzolaraskoa birraitonaren arreba. Aizarnazabalgo Joan Esnalek 60 urte zituen 30 urte lehenago hil zenean, eta hari entzun omen zion Bekolako Otxoa Lopez Altzolaraskoa ezagutu zuela.

Aizarnazabalgo Martin Narbaktak erantzun zuen gero. 79 urte zituen eta garai batean sagardoa Bekolatik Bedamara eramaten zuen, Martin bera Bedamakoa zelako. Martin Narbaktaren aita, Migel Izurola, Bedaman Aiako partean zegoen Izurola baserrikoa zen, eta Martin ere han bizi zen 27 urte bete zituen arte. Handik ezagutzen zituzten Bekolako biztanleak eta ondasunak. Migel Izurolak, 20 bat urte lehenago hil zenak, Bekolan Otxoa Lopez Altzolaraskoa nagusi zela ezagutu omen zuen. Martin Narbaktak egin zizkieten galderei baiezkoa erantzun zien.

Oikiako 68 urteko Joan Agirrek hitz egin zuen ondoren lekuko gisa. Aizarnan eta Azpeitian ibiltzen zelako ezagutzen zituen Bekolakoak. Sasiola batxilerrarekin ere ibiltzen omen zen Bekolara joanda. Joan Agirrek egin zizkieten galderei baiezkoa erantzun zien. Gipuzkoako agorrolarik onenetakoa omen zen Bekola, burdin mea eramateko eta landutako burdina ateratzeko erosoa zelako.

Ondoren, 36 urteko Domingo Aranguren aizarnarri bigarren galdetegiko galderak egin zizkieten. Galderei baiezkoa erantzun zien. Bekolako basoak leku epelean eta babesean zeudelako, hamar edo hamabi urtetik behin soiltzen omen zituzten. Domingo Aranguren burdinolako urtzailea zenez gero, bazekien Bekolan urtean 1.000 kintal burdina ekoizten zituztela. Kintal burdinak urrezko dukata balio omen zuen Zumaia, Deba eta Donostiako portuetan. Bekolako errota, Pagaldazuri, Zornotza eta Errotabarrenari buruzko iritzia ere eman zuen.

Jarraian 68 urteko Esteban Aranguren bizarginak bigarren galdetegiko galdera batzuei erantzun zien. Martin Olazabal zurgin-maisuak konpondu omen zituen Bekolako burdinola eta errota. Esteban Aran-

3.5. irudia.
Granadaerrekako
Errotabarrenaren
aurriak.



guren Bekolako olagizonei bizarra mozten ibili omen zen. Galderei, oro har, baiezkoa erantzun zien.

Hurrengo 52 urteko Joan Lizasoetari egin zizkioten bigarren galdetegiko galderak. Joan Lizasoeta errementaria zen, eta burdinoletako tresnak (kurrikak, mailu-buruak, etab.) egiten zituen; baita Sebastian Artazubiagari Bekolan ere. Joan Lizasoeta lehenbizi Aiako Maiagan maizter izan zen, eta handik ezagutu zituen Bekolako ondasunak. Galderei baiezkoa erantzun zien, oro har. Joan Lizasoetak kintal burdina dukat batean erosten omen zuen azken 12 urtean.

62 urteko Sebastian Ezenarrok erantzun zien gero lehen galdeketako galderei. Baiezkoa, oro har. Aita Pedro Ezenarrok Joan Lopez Altzolaraskoa birraitona ezagutu omen zuen. Sebastian Ezenarro Aizarnako Urrutikoetxean bizi zen alargunduta. Domingo Ezenarro zena osaba zuen, eta 40 urte lehenago hil zenean, 100 urte omen zituen. Sebastianen aita Lope Ezenarro omen zen, eta 28 urte lehenago 95 urte zituela hil omen zen. Aitak eta osabak ziotenez, Bekolako oinordekoak seme zaharrenak izan ziren, eta gainerrako anai-arrebei Bekolako onibarrik ez zieten eman.

Ondoren Joan Otxoa Artazubiagakoa Aizarnako apaizaren txanda izan zen. Bigarren galdetegiko

galderak egin zizkioten. Joan Otxoak, hain zuzen, lehenago Joan Martinez Olotzagakoa kontulariaren galderei ere erantzun zien. Baso, burdinola, errota eta abarrei buruz zekiena erantzun zuen. Sebastian Artazubiagak eta Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak Aizarnan elkartuta egiten omen zituzten beren kontuen kitapenak.

Aizarnako plazan bizi zen 78 urteko Grazia Mantelolak eman zituen ondoren erantzunak. Galderak lehen galdeketakoak ziren. Joan Lopez Altzolaraskoa aitona hil zenean, Grazia Mantelolak jantzi omen zuen gorpua. Alearekin Bekolako errotara joaten omen zen irina egitera. Aiatik Aizarnara bizitzera 60 bat urte lehenago joan omen zen. Aizarnako Askatsua etxean hasi omen zen lanean.

Jarraian 40 urteko Martin Zulaika aizarnarrak bigarren galdetegiko galderei erantzun zien. Garai batean Zarauzko Basobeltza burdinolan lan egiten omen zuen, eta hara zihoanean ezagutu omen zituen Bekolako biztanleak eta ondasunak. Galderei baiezkoa erantzun zien. Basoak 12 edo 13 urtean behin mozten omen ziren. Martin Zulaikak urtzaille gisa lan egin omen zuen Bekolako burdinolan. Pagaldazuri, Zornotza eta Errotabarrena etxeei buruz zekiena ere aitortu zuen.

66 urteko Martin Legarda aizarnarraren txanda izan zen ondoren. Lehen eta bigarren galdeketako galderei erantzun zien. Martin Legardaren aita Martin Kortazar zapataria zen, eta Bekolakoei zapatak egiten omen zizkien. Hark Otxoa Lopez Altzolaraskoa ezagutu omen zuen.

Martin Legarda, hain zuzen, Urbieta etxean jaio zen, eta 23 urte bete arte han bizi izan zen Aizarnako Lizasoetara ezkondu zen arte. Joan Lopez Altzolarats aitona Lope apaiza eta Otxoa anaiak omen zituen; baita Arteaga etxera ezkondu zen arreba eta Aizarnara ezkondu zen beste arreba ere. Martin Legarda Galizian eta Asturiasen ibilia omen zen, eta han ere seme zaharrena izaten omen zen oinordeko.

Martin Kortazar aitak, 40 urte lehenago hil zenean, 70 urte omen zituen, eta hark ezagutu omen zuen Otxoa Lopez Altzolaraskoa Bekolako jaun gisa. Gero, Pero Lopez Altzolaraskoaren Maria Joango Altzolaraskoa arreba Errezilgo Errekondora ezkondu zen, eta Grazia Altzolarats Nikolas Ibañez Igartzakoarekin Zarautza ezkondu zen. Bi arrebek dote gisa burdina eta dirua jaso omen zuten, baina Bekolako onibarrak ez omen ziren zatitu. Martin Legardaren iritziz, 12.000 dukateko itsasontzia ala Bekolako bere ondasunekin aukeran emanez gero, hark Bekola hautatuko omen zukeen.

Martin Zabala zurgin-maisuak konpondu omen zituen Bekolako burdinola eta errota. Bekolako baso gehienak soilduta omen zeuden, lehen ez bezala. Bekolakoa Gipuzkoako agorrolarik onenetakoa omen zen. Errota ere bai.

Martin Legardak zioenez, Aizarnako Florentzia etxean Anton Altzolaratsen etxean esan zutenenez, Sebastian Artazubiaga eta Joan Lopez Arteagakoa bildu ziren, hark honi errentaren bidez zorrak ordaintzeko. Bekolako beste hartzekodun batzuei ere ordaindu omen zien.

Sebastian Olidenen txanda izan zen ondoren. 23 urte zituen eta Aizarnan bizi zen. Hirugarren galdeketako galderei erantzun zien. Lehen galderan aipa-

tutako pertsonak ezagutzen zituen, Joan Agirre eta Martin Narbazta izan ezik. Sebastian Oliden Zestoan jaio eta 8 urte bete arte bertan egon zen. Geroztik Aiako Erretzabal baserrian bizi zen. Galderei, oro har, baiezkoa erantzun zien.

Hurrengo 24 urteko Joan Amilibia lekuko zestoarrak erantzun zien hirugarren galdeketako galderei. Amilibian jaio zen Joan, eta galderetan aipaturiko guztiak ezagutzen zituen. Ospe onekoak ziren.

Pedro Egaña aizarnarra izan zen azken lekukoa. 42 urte zituen eta hirugarren galdeketako galderei erantzun zien. Han aipatutako pertsona guztiak ezagutzen zituen. Fama onekoak omen ziren.


- 1533-IV-3an, Valladoliden, Anton Mendiola eskribauak lekukoen testigantza hauek guztiak aurkeztu zituen Kantzelaritzan (ikus [XVI. m. (33-I) 2] agiria).

3.1.2. Domenja Liliren eta Katalina Diaz Mirubikoaren testamentuak

- 1533-VII-11n, Zestoan, Domenja Lili andreak egin-dako testamentuan, Liliko maiorazkoa sortu zuen. Bertan Joan Perez Idiakaizkoa senar zenak utzitako eta Domenjarenak ziren ondasunak bildu zituen. Ondasunak Zestoa, Deba eta beste nonahi egon zitezkeen. Joan Perez Idiakaiz-Lilikoa seme zaharrena izendatu zuen maiorazko, horretarako zuen errege-pribilegioaz baliatuta. Joan Perez semeak aukeratuko zuen hurrengo maiorazkoa, oinordekoa lehen mailatik laugarren mailarainoko senidetasuna izanik eta legezko ezkontzazkoa izanik.

Maiorazkoan ondasun hauek sartu zituen: Liliko dorretxe berria (zaharra gure iritziz oraingo Lilibea zen) bere bi burdinolekin (Olalde eta Lilibeko olatxo), bi errota, Zigaranzar, Olazarraga, Legoiaga, Olazabal eta Bidaniko bi baserriak, beren baso, txaradi, landa, soro, lur, sagasti, gaztainadi, baratze, era guztietako zuhaitz, belardi eta abarrekin. Ondasun haiek guztiak maiorazkoan lotuta geratu ziren. Era berean, loturik geratu ziren Domenja Lilik Zestoako

3.6. irudia. Lili jauregia. 1533ko dorre berria.



elizan zuen kapera eta errege-erreginei erositako eskubidez Burgosen urtero jasotzen zituen 60.000 maraiak ere. Eskubide hura ordurako Joan Perez semeak berea zuen (ikus [XVI. m. (33-VII) 1] agiria).

(Aipatzen den Liliko dorre berria, gure ustez orain aurrez aurre begiratuta ezkerrean dauden bost leiho pare baino gorago dagoen harrizko lerrorainokoa zen, lurretik hasita. Goiko zatia eta sarrerako ate nagusiaren zatia artean eraiki gabe zeuden gure iritziz. Beraz, Lilibea eta Liliko dorre berriaren artean hutsunea zegoen).

Dirudienez, 1533-VII-11n, Kristobal Artzubiaga eta Blas Artazubiaga eskribauen aurrean egin-dako testamentuari kodiziloa erantsi zion Domenja Lilik. Bertan Alachako konderrria Liliko maiorazkoari lotu zion¹. Domenja Liliren testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Lizarrarats, Jakobo Ipintza, Joan Arretxe eta Joan Martinez Lilikoa.

Domenja Lilik, hain zuzen, bere testamentua seme Frantzisko Lili fraide frantziskotarrak sinatuta aurkeztu zuen. Frantzisko Domenjaren semea zen, Arantzazuko fraide goardianoa.

Domenja Lilik bere testamentuan agindu zuenez, Zestoako elizan berak eraikitako kaperan hilobiratu-tuko zuten. Gatibu zeuden kristauak askatzeko sei dukat eman zituen. Domenjak Zestoan frantziskotarrei etxe bat egiteko lursaila utzi zien, bertan pobreei laguntzeko ospitalea eraiki zezaten. 120 dukat eman zituen etxea eraikitzeko. Zenbat ohe, mahai eta abar ipini behar zituzten ere zehaztu zuen. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eraikiko zuen etxea eta ondasun haiek Liliko maiorazkokoak izango ziren. Zigaran baserrian zeuzkan abere batzuk etxe horretarako izango ziren². Domenjaren seme Frantzisko Idiakaitz-Lilikoa fraidea gero Italiako Adriako apuzpiku izan zen¹.

Testamentu-betearazle bere hiru seme hauek izendatu zituen: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Martin Perez eta San Joan Perez lizentziatua.

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa seme zaharrenak Domenja Liliren ondasunen inbentarioa egin nahi izan zuen ondoren, anai-arreben eta alkate Pedro Ausoroetxearen aurrean. Horretarako Grazia Ipintza serorari eta Maria Olazabal neskameari amak utzitako giltzak (Domenjaren kutxenak) eskatu zizkien. Ku-

txetan zeuden ondasun batzuk hauek ziren: zilarrezko 3 pitxer, zilarrezko 12 katilu, landutako katilu bat, urrezko dobloiak, ehunak, etab.²

- 1533-XII-31n, Zestoako Txiriboga etxean, Katalina Diaz Mirubikoa alargunak testamentua egin zuen Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Hildakoan Aizarnako elizan lurperatuko zuten, Errodrigo Txiriboga senar zena zegoen hilobian. Aizarnako elizan Txiriboga etxeko hildakoen eta Katalinaren arimaren alde zortzi aldiz 30na meza emango zituzten: bitan Joanes Ipintza apaizak, bitan Joan Otxoa Artazubiagakoak, bitan Domingo Urbietak (Santxa Txiribogaren arimaren alde), eta 30na meza Joan Indok eta Aizarnazabalgo bikarioak.

Katalina Diaz Mirubikoak limosna hauek utzi zituen: gatibu zeuden kristauak askatzeko Gaztelako erreala, Aizarnako elizako lanetarako dukata, Santa Engraziako ermitarentzat erreala, Zestoako elizarentzat erreala, Aizarnazabalgo elizarentzat erreala, eta Zumaiaiko San Pedro elizarentzat urrezko florina. San Joan Malleo-ra? erromerian joateko egin zuen promesa bete egingo zuten.

Katalina Diaz Mirubikoak zenbait zor zituen: Maria Beltran Iraeta zenaren oinordekoei 16 dukat inguru; Maria Lopez Elorriaga-Lizasoetari ere zorra egin zion; Martin Lizasori dukata; Joanes Ipintza apaizari 2 dukat eta 19 txanpon; Maria Joango Paginori 36 libra urdai; Maria Joango Bengoetxeari 16 florin arrunt, etab.

Katalinaren anaia Martin Diaz Mirubikoak Txiriboga etxeak ordaintzeko obligazioak zituen, eta ordaindu egingo zizkioten (ikus [XVI. m. (32-VI) 14] agiria). Katalinaren seme Pedro Txiriboga zenaren zorrak ere ordaindu egingo zituzten.

Katalina Diaz Mirubikoak ontzat eman zuen lehenago Joan Perez Etxezarretakoa eskribauaren bidez alaba Katalina Txiribogari egindako ondasunen herenaren eta bostenaren hobekuntza. Martin Txiriboga semeari, berriz, 10 kintal burdina emango zizkioten seniparteagatik. Gauza bera Bartolome Txiriboga se-

meari ere. Pedro seme zenaren alaba Katalinari ere 10 kintal burdina emango zizkioten.

Testamentu-betearazle hauek izendatu zituen: Zumaiaiko Martin Diaz Mirubikoa anaia eta Joan Ruiz Arteagakoa, eta Zestoako Martin Ondalde. Testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Indo, Joan Fernandez Arreizakoa eta Martin Legarda gaztea (ikus [XVI. m. (33-XII) 1] agiria).

3.1.3. Aizarnazabal eta Oikiako elizen patronatua eta Otxoa Martinez Beduakoa

1531. urtean Joan Beltran Iraeta hil zenean, Otxoa Martinez Beduakoak eta Joan Mirubiak Aizarnazabalgo eta Oikiako elizetako patronatua eliztarrentzat berreskuratu nahi izan zuten, eta aipatutako elizetarako apaiz benefiziadu bana aurkeztu zuten, Iruñeko apezpikuak izenda zitzan (ikus [XVI. m. (31-IV) 16] agiria).

-1531-IX-17an, Azpeitian, Gipuzkoako korrejidore Diego Ruiz de Lugo lizentziatuak agindua bidali zion Saiazko Martin Diaz Mirubikoa zinegotzi nagusiari. Korrejidoreak zioenez, Zestoako Otxoa Martinez Beduakoa (Aizarnazabalgo eliztarra) Saiazkoen prokuradore izan zen haren korrejimenduan eta Iruñeko apezpikuaren aurrean, Fortun Santxex Iraetakoarekin eta Alonso Idiakaitzekin izandako auzietan.

Auzi haiek bideratzen Otxoa Martinezek gastu handiak egin omen zituen, baina Saiazkoek ez omen zioten ordaintzen. Beraz, korrejidoreak agindua bidali zion Saiazko Martin Diaz zinegotzi nagusiari, Otxoa Martinez Beduakoarekin kontuak egin eta hamar eguneko epean zorra ordain ziezaioten. Bestela hiru egun barru korrejimendura prokuradorea bidali beharko zuten ez ordaintzeko arrazoiak azaltzera.

-1533-IX-26an, Zumaian, Otxoa Martinez Beduakoak eskatuta, Joan Santxex Zumaiakoa eskribauak korrejidorearen aginduaren berri eman zion Martin Diaz Mirubikoari. Joan Orio eta Gaspar Orio (Joan Blas Orioren semeak) izan ziren lekuko (ikus [XVI. m. (33-IX) 1] agiria).

3.7. irudia. Beduaundi.



3.1.4. Elizetako patronatuaz Zestoako Kontzejuak Alonso Idiakaitzekin zuen auzia

1533-X-11n, Valladoliden, Kantzelaritzako epaileek, besteak beste Gipuzkoako agintariei, errege-gutun betearazlea bidali zieten. Zestoako Kontzejuak lehenbizi auzia Joan Beltran Iraetaren aurka izan zuen, Zestoia eta Aizarnako elizetako patronatuaz.

Gero Joan Beltran Iraeta hil egin zen, 1531. urtean, eta Karlos V.a enperadoreak Aizarnazabal, Oikia, Aizarna eta Zestoako elizetako patronatuak eta Zestoako probestutza Alonso Idiakaitzi eman zizkion.

Lehenbizi auzian alde hauek hartu zuten parte: Zestoako Kontzejuak, Joan Beltran Iraetak eta, errege-erreginen izenean, Fernando Tapia lizentziatu eta fiskalak.

Hain zuzen 1485-III-28an, Kordoban, *Errege Katolikoek* mesede egin zioten Joan Beltran Iraeta IV.a umeari pribilegioa emanez, aita Joan Beltran Iraeta III.ak egindako zerbitzuengatik. Aizarnazabal, Oikia, Zestoa eta Aizarnako elizetako patronatua eta Zestoako probestutza bere bizialdirako eman zizkion (ikus *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 81] agiria). Zestoako Kontzejuak, hala ere, *Errege*

Katolikoek emanda, 1485-VII-28an aitorpen-agiria eskuratu zuten, eta bertan erabakitzen zenez, Aizarnako eta Zestoako elizetako hamarren eta opalkuntzen erdia eta erretore zein apaizak Iruñeko apezpikuari aurkezteko eskubidea Kontzejuaren esku geratu ziren (ikus *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 97] agiria).

Kontzejuaren eta Joan Beltran Iraetaren prokuradoreak lehian ibili ziren Kantzelaritzan, bakoitzak bere aldeko arrazoiak aurkeztuz. Kontzejuak, hain zuzen, Joan Beltrani emandako pribilegioa haustea eskatzen zuen, eta Joan Beltranek Zestoako Kontzejuari emandako aitorpen-agiria deuseztatzea. Joan Martinez Amilibikoak aitorpen-agiriaren kopia aurkeztu zien epaileei. Fortun Santxez Iraetakoarekin Kontzejuak zuen beste auzi batean Joan Beltranek errege-pribilegioa aurkeztua omen zuen.

Zestoako Kontzejuak Aizarna eta Zestoako elizetako hamarren eta opalkuntzen erdia elizetako zerbitzurako gera zedila eskatu zuen. Apaizak apezpikuari aurkezteko eskubidea Zestoako Kontzejuak Iruñeko apezpikuak emanda zeukala zioten. Joan Beltranek hamarren eta opalkuntza guztiak beretzat nahi zituen, azken batean patronatua errege-erreginena zelako.



3.8. irudia. Zestoako parroikia. Korropea.

Zestoako Kontzejuak Frantzisko Gartzia eta Frantzisko Perez eskribauen aurrean Joan Beltranekin egindako ituna erakutsi zuen. Kopia Joan Beltranen Anton Oro prokuradoreari eman zioten. Epailleek bi aldeei epea eman zieten testigantzak eta agiriak aurkez zituzten. Fernando Tapia fiskalak ere eskea egin zuen. Elizetako patronatua erregeena zela zioen, eta erregeek pribilegioz emana zela Joan Beltran Iraeta IV.ari eta haren aurrekoei. Beraz, Zestoako Kontzejuaren eskaera ez zuen ontzat hartu.

Azkenean epailleek, 1530-X-21ean, epaia eman zuten: 1485-III-28an Kordoban Joan Beltrani emandako pribilegioak zioena bete egingo zen, baina baita 1485-VII-28an Kordoban Zestoako Kontzejuari emandako aitorten-agiriak zioena ere. Auzi-gastuak alde bakoitzak berean ordainduko zituen.

Joan Beltran Iraetaren aldeak eta Francisco Tapia fiskalak epaiaren aurka gora jo zuten. Zestoako Kontzejuak ere bai, auzi-gastuak bakoitzak bereak ordaindu behar zituelako.

Epailleek berrikuspen mailan prozesua berriz aztertu zuten. Ostera ere alde bakoitzak bere arrazoiak azaldu zituen. Orduan, 1531. urtean, Joan Beltran Iraeta hil egin zen, eta haren pribilegioko patronatuak Karlos V.a enperadoreak Alonso Idiakaitzi eman zizkionez gero, Alonso Idiakaitz aurkeztu zen auziari jarraipena emateko asmoz. Antonio Cuellar zen Alonso Idiakaitzen prokuradorea, eta honek bere ahalordea erakutsi zuen.

- 1532-I-27an, Valladoliden, Antonio Cuellarri epailleek agindua eman zioten, auzia Joan Beltran Iraetak utzi zuen puntuan har zezan. 1532-IV-16an berriz agindu zioten Antonio Cuellar prokuradoreari gauza bera. 1532-V-10ean Alonso Idiakaitzen aldeari, epai bidez, ez zioten utzi bere testigantzak hartu eta aurkezten.

Valladoliden, epailleek behin betiko epaia eman zuten berrikuspen-mailan. Lehen (1530-X-21ean) emandako epaia ona zen, eta berretsi egin zuten. Gero, 1533-X-11n, Valladoliden, Zestoako Kontzejuaren eskariz errege-gutun betearazlea egin zuten (ikus [XVI. m. (33-X) 1] agiria).

3.1.5. Elizetako patronatuaz Zestoako Kontzejuak Fortun Iraetarekin zuen auzia

- 1533-X-23an, Karlos V.a enperadoreak eta Joana erreginak, Gipuzkoako eta gainerako lurralde eta erreinuetako agintariei gutun betearazlea bidali zieten. Lehenbizi Errege-kontseiluan auzia Zestoako Kontzejuak hasi zuen Gipuzkoako artzapez Fortun Santxez Iraetakoaren aurka. Errege-erreginen Frantzisko Tapia fiskal eta lizentziatuak ere parte hartu zuen.

Fortun Santxez Iraetakoak Erroman Aita Santuaren buldak lortu zituen Aizarnako elizako erretore izateko. Aizarna eta Zestoako elizetako patronatua erre-

ge-erreginena izanik, Zestoako Kontzejuak eskubidea zuen, haiek emanda, Iruñeko apezpikuari eliza haie-tako erretore eta apaizak aurkezteko, eta Fortunen aurka agertu zen. Orduan Fortun artzapezak Erroman beste bulda eta zigor-abisu edo eskomiku batzuk lortu zituen, eta Aizarnako elizaren atean ipini zituen.

Errege-kontseilukoek, gaia aztertuta, elizetako patronatua erregeena zela erabaki zuten, eta ausardia handiegia eduki zuelako, erreinuko herritar-izae-ra kendu egin zioten Fortuni (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (24) 25], [XVI. m. (24) 45], [XVI. m. (25) 5], [XVI. m. (25) 11], [XVI. m. (27-II) 9] eta [XVI. m. (27-VI) 1] agiriak).

Zestoako Kontzejuaren izenean Joan Martinez Amilibikoa prokuradoreak zioenez, Fortunek Aizarnako elizari Zestoako eliza eta Santa Engraziako ermita erantsi zizkion. Gainera Fortuni errege-aginduak zioena jakinarazi zioten, eta Errege-kontseilura ez zen agertzen, aginduta bezala. Fortunek zioenez, Aita Santuaren buldak itsasoan galdu omen zituen ekaitz batean. Preso eraman zezatela eskatu zuen Zestoako ordezkariak. Zestoako eta Aizarnako elizetan elizkizunak egiteko apaizei agindua bidaltzea ere eskatu zuen.

Orduan Fortun Santxez Iraetakoak eskea egin zuen Errege-kontseiluan. Anaia Joan Beltran Iraetari eliza haie-tako hamarrenen erdia jasotzeko mesedea egin omen zioten *Errege Katolikoek*. Apaizak Iruñeko apezpikuari aurkezteko eskubidea eliztarrena omen zen, erregearen mesedez. Hura erretore-karguaz bakean jabetu omen zen, eta denboraldia horrela igarota, kargutik indarrez kendu omen zuten. Zazpi urtean ari omen ziren auzitan Erroman, eta Fortuni 500 dukateko gastua eragin omen zioten. Gainera, zazpi urtean elizetan sortutako errenta eta etekinak lapurtu omen zizkioten.

Fortun artzapezak zioenez, Aita Santuaren buldak itsasoan 1507. urtean galdu eta bere burua ozta-ozta salbatu omen zuen egur bati helduta, baina bulden kopia beste aldeak ba omen zuen. Fortunek beste agiri batzuk ere aurkeztu zituen Errege-kontseiluan.

Zestoako Kontzejuaren izenean Joan Martinez Amilibikoa prokuradoreak zioenez, *Errege Katolikoek* Aita Santuarengandik buldak lortu zituzten, Gipuzkoan, Bizkaian eta Palentziako elizbarrutian apaizak apezpikuari haiek aurkezteko. Beraz, Fortunek gauza itsusia egin zuen. Artzapezak zioenez, ordea, hari elizetako hamarrenen erdia eman eta beste erdia elizako zerbitzurako (erretore eta apaizentzat) utzi behar zen. Exekuzio-agiriak 1521. urtean eman omen ziren, eta errege-epaileenak 1524an.

Fortunek, bestalde, azken zortzi urteetan elizetan izandako eta hari zegozkion etekinak ordain ziezazkiotela eskatu zuen. Gainera, Erromako Rotako auditorearen aurrean gai hartan epaia Fortunen aldekoa izan zen. Zortzi urteko auziaren ondoren Errege-kontseilura eraman zuten auzitara.

Orduan Errege-kontseilukoek, bi aldeak eta fiskala auzitara onartu zituzten, eta bakoitzak bere aldeko arrazoiak, testigantzak eta agiriak aurkeztu zituen. Kontzejuak eta Fortunek ituna egin zuten, baina gero beste auzi bat izan zuten Gipuzkoako korrejidorearen aurrean. Fortunek, epaiari aurka eginez, auzia Valladolidko Kantzelaritzara eraman zuen.

Dena den, auziaren prozesua Errege-kontseilura iritsi zen, Ramiro Campo eskribauaren bidez. Errege-kontseilukoek aukera eman zieten bi aldeei azken argudioak frogatzeko. Zestoako Kontzejuak zioenez, 135 urte baino gehiago ziren apaizak apezpikuari aurkezteko eskubidea zeukatela.

Ondoren Errege-kontseilukoek auzia Valladolidko Kantzelaritzako epaileen esku utzi zuten. Hauek bi aldeei eta fiskalari epea eman zieten beren alegazioak aurkezteko. Gero, 1530-X-21ean, epaia eman zuten: Fortun Santxez Iraetakoak bere erretore-kargura itzuliko zuten, eta elizetan zegozkion etekinak jasoko zituen. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen. Zestoako Kontzejuak eta fiskalak epaiari aurka egin zioten. Gipuzkoako probintzian patronatua zeukatenei ez omen zitzaien ordura arte apaizak apezpikuari aurkezteko eskubidea ukatu. Fortunek



3.9. irudia. Aizarnako elizako portalea.

zioenez, hark erretore-kargua sei hilabetez bakean eduki omen zuen. Beraz, ordura arte kendu zizkioten etekinak eskatu zituen.

Auzia, berrikuspen mailan, berriz azertu zuten epaileek. 1533-IX-26an behin betiko epaia eman zuten, lehenago 1530-X-21ean emandakoa berretsiz. Geroxeago, 1523-X-23an, errege-gutun betearazlea bidali zuten (ikus [XVI. m. (33-X) 2] agiria).

3.1.6. Altzolarats jauregikoek Teresa Lopez Olazabalgoarekin zuten auzia

- 1533-XI-29an, Valladolidko Kantzelaritzatik errege-gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako eta erreinuetako agintariei. Altzolarats jauregiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak, emazte Maria Perez Arnonakoak eta Ana Arretxe alargunak auzia ipini zieten,

Gipuzkoako korrejidore Diego Ruiz de Lugo lizentziatuaren aurrean, Getariako Teresa Lopez Olazabalgoari, Maria Lopez Olazabalgoa ahizpari eta honen seme Frantzisko Arronari. Teresa eta Maria, hain zuzen, Sebastian Olazabal batxilerraren eta Ines Bildain zenen alabak ziren.

- 1467-I-13an, Getarian, Altzolarats jauregiko Beltran Ibañez Gebarakoak eta Joan Lopez Altzolarasakoak ituna egin zuten. Bertan Joan Lopezek eta Sebastian Olazabal batxilerrak konpromisoa hartu zuten handik aurrera betiko Beltran Ibañez Gebarakoari eta haren ondorengoei Getarian urtero Beltranen etxean bi kintal burdina ordaintzeko (ikus *I ZESTOA MENDEAN ZEHAR* liburuko [XV. m. 32] agiria).

Sebastian Olazabalen ondorengoen urteroko bi kintalak ordaintzeari utzi egin ziotelako, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren aldeak, Pedro Zabala prokuradorearen bidez, 1529-I-7an, Azkoitian, korrejidoreari demanda aurkeztu zion. Sebastian Olazabalek bere garaian bi kintalak urtero ordaintzeko zenbait ondasun hipotekatu egin zuen: Getaria eta Zarautzen artean zegoen Garro baserriaren erdia, Aldamarko mahastia, Akerregiko mahastia, etab. Pedro Zabalak 1467-I-13ko agiria aurkeztu zuen.

Hipotekaturiko ondasun haien jabe Teresa Lopez Olazabalgoa, Maria Lopez Olazabalgoa eta honen seme Frantzisko Arrona ziren, eta azken bi urteetan ez zituzten bina kintal ordaindu. Aurreko urte batzuetan ere ez zituzten ordaindu, eta errudun ziren.

Korrejidoreak demanda onartu egin zuen. Frantzisko Arronak zioenez, Sebastian Olazabal aitona kintal haiek ordaintzen zituen, eta Frantziskoren ama ere ordaintzen zituelakoan zegoen. Frantzisko Arrona eta ama Maria Lopez prest zeuden hipotekaturakoak eta haienak ziren ondasunen zatiak San Joan Perezen aldeari emateko, haien errenta eta etekinetik San Joan Perezen aldeak zegokiona kobra zezan. San Joan Perez batxilerraren aldeak zioenez, haiek ez zeuden hipotekaturiko ondasunak hartzera behartuta, eta 1467ko kontratua betetzea besterik ez zuten

nahi. Ondoren Teresa Lopez Olazabalgoaren izenean Antonio Atxaga prokuradorea azaldu zen. Hura ez omen zegoen kintalak ordaintzera behartuta. Erbeeta batxilerrak egingo omen zuen eskabidea, arrazoiak azalduz, baina geroago, orduan elurrak eta eguraldi hotzak eragotzi ziolako.

Teresa Lopez 33 urte lehenago ezkondu omen zen, eta harrezkero Maria Lopez ahizpak ordaindu omen zituen kintalak. Teresa Lopezen ezkontza-kontratua Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauak idatzi omen zuen, eta Maria Lopez ahizpa geratu omen zen ordaintzeko arduradun.

San Joan Perezen aldeak zioenez, Teresa Lopezek ere ordaintzeko obligazioa zeukan, eta ez Maria Lopez eta honen senar Grazian Arronak bakarrik. Korrejidoreak bi aldeak onartu zituen auzitara. San Joan Perezen aldeak testigantzak aurkeztu zituen, eta korrejidoreak, Tolosan, 1529-VI-7an epaia eman zuen. San Joan Perezen aldeak arrazoi zuen, eta Teresa Lopezek eta Maria Lopezek 1467. urteko kontratua bete egin behar zuten. Lau kintal burdina ordaindu egin behar zizkieten sei eguneko epean, eta handik aurrera urtero bina kintal. Auzi-gastuak ere Teresa Lopezek eta Maria Lopez ahizpak ordainduko zituzten.

Orduan Teresa Lopez, Maria Lopez eta honen seme Frantzisko Arronak gora jo zuten Valladolidko Kantzelaritzara. Joan Lopez Arrietakoa prokuradoreak, San Joan Perezen aldearen izenean, korrejidorearen epaiaren alde egin zuen. Joan Otxoa Urkizukoa prokuradorea, Teresa Lopez Olazabalgoaren izenean, aurka azaldu zen.

Azkenean, Valladolidko epaileek, 1532-X-15ean, epaia eman zuten, Diego Ruiz de Lugo korrejidorearena berretsiz. Teresa Lopez Olazabalgoak, berrikuspen mailan epaiari aurka egin zion, bere arrazoiak azalduz. Teresa Lopez ahizpa Joan Perez Amilibikoarekin ezkondu zenean eman zizkieten ondasunak aske omen zeuden kintal burdinak ordaintzetik. Maria Lopez ahizparen ondasunak omen zeuden kintal haiek ordaintzeari lotuta.



3.10. irudia. Getariako Kale Nagusia.

Epaileek bi aldeak auzitara hartu zituzten. Teresa Lopezek ez zuen testigantzari aurkeztu. Agiria aurkeztu zuen, non Sebastian Olazabal batxilerrak eta emazte Ines Bildainek alaba Maria Lopezi dohaintza egin baitzioten, hau Grazian Arronarekin ezkondu zenean. Getariako Pedro Iribar eskribauak idatzia zen agiria.

Orduan Pedro de Nava epaileak, lehenago Gipuzkoako korrejidore izanak, Getariako alkateei agindua bidali zien Pedro Joan Iribar eskribau zenaren erregistroetan Maria Lopezi egindako dohaintzaren agiria, Teresa Lopezi deituta, atera zezaten. Getariako Joan Martinez Amilibikoa alkateak agindua bete egin zuen. Beltran Untzeta eskribauak atera zuen agiriaren kopia, eta Maria Lopez Olazabalgoari eman zion. Sebastian Olazabalek eta Domingo Bildainek Maria Lopez Olazabalgoari ezkontzeko emandako ondasunak

zehazten ziren, eta haiek arduratuko ziren, besteak beste, Altzolarats jauregikoei urtero bi kintal burdina ordaintzeaz. 1490-VII-14koa zen ezkontza-kontratua. Kopia 1533-II-12an atera zuten. Hil horretako 19an eman zioten kopia Teresa Lopezi.

Horren ondorioz, San Joan Perez batxilerrak epaileei eskabidea egin zien, lehenago eman zuten epaia Maria Lopez Olazabalgoari eta honen seme Frantzisko Arronari jakinaraz ziezaioten. Orduan Frantzisko Arronak epaileei esan zenez, hura prest zegoen hipotekatutako ondasunak San Joan Perezen aldeari emateko eta haien etekinetatik ordainketa egiteko.

Kantzelaritzakoek, 1533-IX-5ean, behin betiko epaia eman zuten: Gipuzkoako korrejidoreak Tolosan 1529-VI-7an emandako epaia zuzena zen, eta osorik berretsi zuten, baina zati hau erantsi zioten: Maria Lopezek eta seme Frantzisko Arronak bederatzi eguneko epean Sebastian Olazabalek emandako ondasunak, bahituran eta hipotekatuta, San Joan Perezen aldeari utziz gero, aske geratuko ziren. San Joan Perezen aldeari auzi-gastuengatik 3.060 marai ordainduko zizkien Teresa Lopezek hiru eguneko epean. Bestela ondasunak enkantean saldu egingo zizkioten (ikus [XVI. m. (33-XI) 1] agiria).

3.1.7. Gipuzkoako Batzarrak, eta beste zenbait gai

1533. urtean Gipuzkoako lehen Batzar Nagusiak Donostian egin ziren apirilaren 26tik maiatzaren 6a arte. Diego Ruiz de Lugo korrejidorea bertan zen, baina ez dakigu Zestoatik prokuradore zein edo zeintzuk joan ziren.

Hainbat gai aztertu ondoren zenbait erabaki hartu ere egin zituzten. Senpereko andreak Gipuzkoako Probintziari haren burdinolara burdin mea eramaten utz ziezaiotela eskatu zion, baina Probintziak zioenez, burdin mea Bizkaitik eraman behar zuen.

Probintziak Hernaniko ermandade-alkateari agindua eman zion Beizamako Gartzia Legarregi apaiza

atxilotu eta Iruñeko apezpikuarengana eraman zezan. Donostiako hiribildukoek proposatuta, Joan Perez Altzustakoa hautatu zuten igorpen-alkate izan zedin.

Joan Genoa borreroarentzat Probintziak 3 dukat eman zituen, harentzat librea edo morroi-jantzia erosteko. Zumarragaren eta Urretxuren ateko auziaz ere erabakiak hartu zituzten. Mairuek gatibu edukita Migel Olea senarra askatu zutelako, Maria Martin Lastur andreak bere saria jasotzeko zailtasunen berri eman zien Batzar Nagusietakoei.

Probintziako herri batzuetan sagardoari ura botatzen ziotela eta, erabat debekatu zuen Probintziak. Ura zeukan sagardoa kendu eta 10 dukateko isuna ezarriko zioten iruzurgileari. Elgetako ordezkariak kexu azaldu ziren merioorde batzuen jokabideaz. Korrejidoreak aginduta apaizen eta gizon ezkonduen maitaleen bizimodua ikertzeko aitzakiarekin, mehatxuak eta bidegabekeriak egiten omen zituzten³.

Hurrengo Batzar Nagusiak Hernanin izan ziren, azaroaren 14tik 24a arte. Korrejidorea bertan zen, eta Zestoatik prokuradore Blas Artazubiaga eskribaua izan zen. Hainbat gai aztertu zituzten. Bartzelonan enperadorea lehorreratu zelako albistea iritsi zen Probintziara. Bizkaiko ordezkariekin Flandesen zuten kontsuletxearen gaiak ere hitz egin zuten.

Getariako Lope Fernandez Izetakoa prokuradoreak zioenez, Aljer herrian preso zegoen Urretxuko Joan Orueren gutuna erakutsi zien guztiei. Han preso zeuden gipuzkoar guztien berri ematen zuen. Debako Joan Guadalupe prokuradoreak zioenez, Migel Oleaga debarra Khair ad-Din *Bizargorri* kortsarioaren esku gatibu zegoen, eta hura askatzeko 5.000 marai eman zituzten.

Probintziako eskribauek kobratzen zituzten lansariak aztertu zituzten, orduan txanpon berriaz kobratzen hasi zirelako. Domingo Iturbe merioordeak lansari handiegiak kobratzen zituelako kexu ziren. Andoingo Azelainen kare eta harrizko zubia egin zezatela agindu zuten.

Igorpen-alkate izateko Astigarragako Domingo Garaiburu hautatu zuten. Besteak beste, Zestoako ordezkariaren botoa izan zuen horretarako. Joan Bidaio eta lagunak eskea egin zuten, Galizian balea harrapatzeko auzian egin zituzten gastuak kobratzeko. Gipuzkoako Probintziak Andaluziatik eta Granadako erreinutik Gipuzkoara garia ekartzeko zeuzkaten errege-zedulak ere aipatu zituzten.

Ijitoak handik aurrera ez zituzten Probintzian onartuko, eta araua betetzen ez zuen alkateak edo zinegotziak 5.000 maraiko isuna izango zuen. Azpeitiko prokuradoreak Iraetan egin berria zuten presa aipatu zuen. Lehengoa baino altuago zegoelako, uraren maila igota errepideak hondatu egiten ziren. Lehenbizi korrejidoak presa ikusi eta arazoa bideratuko zuten. Debako alkateak ere aztertuko zuen presa. Jarraian, agindua eman zuten Zumaiako Oikian behar bezalako zubia hurrengo Batzar Nagusietarako eraiki zezaten.

Getariako prokuradoreak zioenez, Getariatik Zumaiarako pasaian ibaian zebilen txalupa egokia ez zelako pertsona asko ito egin zen. Itsasontzi edo batel ona ipin zezatela eskatu zuen. Kortsario ingelesek Donostiako Pedro Labordari lapurtutako itsasontziaz ere hitz egin zuten.

Beste zenbait hiribilduk bezala, Zestoakoak baimena eskatu zuen Kontzejuak zituen gastuak herritarrei kobratzeko. Zumarragako eta Urretxuko herriek elkarrekin zituzten desadostasunak bideratzeko, Sandoval Ibarra eta Blas Artazubiaga zestoarra izendatu zituzten⁴.

Urte hartan Legazpiko ordenantzatan debekatu egin zuten arrantzarako ibaira karea botatzea. Azpei-



3.11. irudia. Hernaniko Kale Nagusia.

tiko urte hartako ordenantzetan, besteak beste ikazkintza eta errotetako lana arautu zituzten⁵.

Urte hartan, bestalde, Arrasaten Esteban Garibai Zamalloa jaio zen, gero historialari famatu izango zena⁶. Urte hartantxe, L. Marineo Siculo siziliarrak euskarazko hiztegitxoia idatzi zuen⁷.

3.2. HIRUGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ XX. Arboles genealógicos de los poseedores de Lili. San Telmo Museoa. Donostia. Lilitarren Artxiboa. 22.5 paper sorta. (4, 5. or.).

² ERENTXUN, J. *Un hospital franciscano en Cestona*, in La Voz de España. Donostia. 1974-IX-10 (25. or.). (Oharra: eskerrak eman nahi dizkiot Manuel Beraza fraideari, Zarauzko frantziskotarren komentuko Agiritegi Historikoan Domenja Liliren 1533. uztailleko 1eko testamentu originala bilatzen emandako laguntzagatik).

³ XX. Registro de las Juntas Generales celebradas por la M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa en la Villa de San Sebastián del 26 de Abril al 6 de Mayo de 1533. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1935. (1-15. or.).

⁴ XX. Registro de las Juntas Generales celebradas por la M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa en la Villa de Hernani del 14 al 24 de Noviembre de 1533. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1927. (1-35. or.).

⁵ LEMA PUEYO, J. A. eta beste. El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Iturriak 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (41-43. or.).

⁶ AROZENA, F. Guipúzcoa en la Historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (118. or.).

⁷ MITXELENA, K. Textos Arcáicos Vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (146, 147. or.).